

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 213. zkia. 2013ko ekaina



**Amaia  
Idigoras,**

**eskulanetarako  
esku onekoa**





**IRAZABAL**  
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPIEDIATRIA

ORDUTEGIA

Asteleheneretik ostegunera

**08.00 - 22.00**



Zapatuetan

**10.00 - 14.00**

**IRAZABAL HORTZ-KLINIKA**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Leire Elustondo, Estibalitz González, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIO****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**

Amaia Arriaga,  
Zaida Fernández,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López, Pello Mugarza  
eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Alboka Musika Eskola,  
Imanol Alvarez, Igone Amesti, Amaia Arriaga, Ibaia Azagirre, Javier Calviño,  
Leire Elustondo, Eskolabarri,  
Estibalitz González, Valentin Mugarza, Ermuko Udala,  
Udal Liburutegia, Edu Uribe  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.360 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-21/94.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## HORMATXORIA Gorrión común. Passer domesticus



Zaratatsua, bizia, jende zalea, lotsabakoa, ugaria... hiru kumaldietako aldrak nonahi eta edonon ikusteko aukera ematen digute. Habia izandako horma-zulo edo oilo-txabolaren bateko teilatupea laga eta uda aldean baserrietarantz jotzen du, han janaria ugaldu zaiola-eta. Haziak eta frutak dira bere otordurik preziatuenak, txir-txir-txir lora artean, txir-txir-txir fruta sasoiari, helduenak mokokatzen. Herrian, etxe artean ere topatzen du ze jan: plazan, parkeetan, tabernen terrazetako mahaiepetan... Umeren bati ogi-apur edo litxarrerriaren bat lurrera jausi eta

“Txoritxuek jango dabe!” esaten diogunean, ez izan kuidaorik hormatxoriren batek laster botako diola begia, uso begi-zorrotz gosezto bat aurreratzen ez zaion bitartean, noski!

# Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	BOTEPRONTOAN .....17
Thomas O'Callagan, Irlanda	Ibone Medina
ERREPORTAJEA .....5-7	IRITZIA .....18
Imanol Álvarez	Hedabideak, indarkeria matxistaren...
MOTZEAN.....8-9	SALEROSKETAK .....19
José Carlos García, txapelduna	Saldu, erosi edo agurtu
MALLABIAN ZER? .....10	ANTZINAKOAK.....20
San Juan jaietako egitaraua	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA .....11-14	KALEKO INKESTA .....21
Mallabiko Learreta/Markina eskola	Ostegunetan, pintxo-potea egiten duzu?
ERMUAN ZER? .....15-16	AGENDA .....22
Amaia Idigoras eta Eneida Calleja	Santixau aurrekoak

## Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística





# Thomas O'Callagan

**Duela 12 urte etorri zen Thomas Belfast-etik, Irlandatik. 'Ta' deitzen diote lagunak, ingelesezko eskolak ematen ditu eta euskara hutsean hitz egiten du.**

## - Zer dela eta etorri zinen Ermura?

Duela 20 bat urte Irlandan nengoela, hemengo jende mordoaz ezagutzen hasi nintzen. Urte batean, Belfasteko jaietan, Bea ezagutu nuen (nire bikotekidea). Belfasten geratu zen denboratxo batez eta handik urtebetera-edo, ni hona etortzea pentsatu genuen.

## - Nolakoa zen zure bizitza bertan?

Ospitale batean jagolea (zeladorea) nintzen eta gustura nenbilen, hobeto bizitzen hasia nintzen. Bost urte lehenago, berriz, ez zegoen lanik, ez dirurik ezta itxaropenik ere.

## - Lan berarekin jarraitzen duzu?

Ez, ingeleseko irakaslea naiz: hizkuntzei esker bizi naiz. Hemen, orokorrean, jendeak ingelez maila polita du eta, etorri nintzenez, horrek asko lagundu zidan.

## - Euskararekin ere bikain zbiltza...

Heldu eta jarrian hasi nintzen euskaltegian ikasten. Irlandan ezagutu nuen jende gehienak euskaraz hitz egiten zuen eta hona etortzerakoan ere, euskaldunekin ibiltzen nintzen gehienetan. Gazteleraz, gaur egun ere, ez dakit iraganean hitz egiten.



## - Bizilekua aldatzea erraza izan zen?

Ez, batere erraza. Hasieran hizkuntzagarik, gero lagunak, familia... Baina denbora kontua izan zen eta ez dut uste Belfastera bizitzera bueltatuko nintzenik, ez dut nahi. Arazoak ditugu oraindik ere protestante eta katolikoaren artean eta, adibidez, zein tabernara zoazen zaindu behar duzu. Hau askoz ere lasaiagoa da.

## - Nola hartu zintuzten hemen?

Hasieran ongietorri beroa eman zidaten baina gero konturatu nintzen koadrilak, koadrilak direla, eta zaila zela sartzea.

## - Zerk harritu zintuen?

Beroak. Gauza on bat? Asteburuetan berandu irten eta ordu dezente dituzula aurretik oraindik ere. Tabernaz-taberna ibiltzea gustatzen zait. Irlandan orduak eta orduak ematen ditugu taberna berean, beti zutik, futbola ikus-

ten (Glasgow-ko Celtic taldeko jarraitzailea naiz) edo zuzenean jotzen duten musika taldeak entzuten.

## - Zer botatzen duzu faltan?

Gauza asko! Hizkuntza pentsatu gabe erabiltzea, esaterako. Bertan nagoenean, ez naiz isiltzen! Lagunak, gero eta harreman gutxiago daukat eurekin. Eta gosariak ere, hangoak oso oparoak baitira!

## - Bisitan joaten zara?

Bi urte joan barik egon naiz, baina uztailean 7 urteko semearekin joango naiz. Hainbat aldiz egon da bertan eta, ingelesa oso ondo ulertzen duen arren, ez da hitz egitera animatzen. "Aita, zergatik egin behar dut ingelesez zuk euskaraz ulertzen badidazu?", galdeetzen dit. "Baina zure Irlandako familiak, ez" erantzuten diot.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



**Imanol Álvarez, Bera Bera eskubaloi taldeko entrenatzailea:**

## **“Bera Bera taldeari baino ez niokeen baietza emango”**

Imanol Álvarez ermuarrak abuztuaren 1ean ekingo dio Bera Bera talde donostiarraren entrenatzaile lanari. Ezustean jaso du proposamena eta orain arteko taldeari agur esatea erabaki du, Eibar Eskubaloi taldeari. Erronka handia du aurrez aurre, maila gorenean dabilen taldearen gidaritza hartuko duelako eta taldean sendo errotuta zegoen entrenatzaileari lekukoa hartuko diolako, besteak beste. Baina zalantzak zalantza, aurrera egiteko hautua egin du, etxekoen babes osoarekin.



**- Bera Beraren deia jasotzea espero zenuen?**

Ez, ez nuen espero. Reyes Carrerek taldea utziko zuela entzun nuen, baina ez zitzaidan burutik pasatu ere.

**- Non harrapatu zintuzten?**

Etxean nengoen eta nire jokalaria ohi batek deitu zidan, Unai Arrietak. Bere emazte Patriren ahizpak, Eli Pinedok, Bera Beran jokatzen baitu: "Imanol, uste dut bihar Bera Beratik deituko dizutela", esan zidan Unai. Hurrengo egunean, Bera Berako Kirol Zuzendari Tati Garmendiak deitu zidan, nigan pentsatu zutela eta ea interesatzen zitzaidan galdetzeko.

**- Berehala eman zenuen erantzuna?**

Ez, egun batzuk eskatu nizkion eta astebeteko epean baietza eman nion.

**- Zeintzuk zalantza izan zenituen?**

Lan arloan, nire anaiarekin lan egiteari utzi eta entrenatzeari baino ez dedikatzea eskatzen zidan. Horrek asko kezkatzen ninduen, baina anaiarekin akordio batera heldu naiz: eszedentzia moduko bat hartu, eta gauzak gaizki badoaz bueltatze-

ko aukera emango dit. Bestalde, emaztearekin oporretan joateko dena prest nuen eta bertan behera utzi behar izan ditugu gure planak. Berak ere ilusio handia dauka proiektu honekin eta aurrera egiteko esan dit.

**- Aurretik neskak entrenatu ez dituzun arren, talde donostiarraren lehen aukera izan zara, ezta?**

Bai, eta oso pozik nago, ez naiz kekatzen!

**- Liga, Kopa eta Superkopa irabazi du aurten Bera Berak. Beldurrik?**

Ez, ez daukat beldurrik. Orain arte egindako lana hobetzea oso zaila izango dela esaten dit jendeak, baina hain justu, horrek erakartzen nau: talde ona da, sasoi onean dago eta nire jokoa egiteko aukera emango dit. Erronka polita da, aurrerapausoa. Iaz beste ASOBAL ligako mutil talde bat entrenatzeko eskaintza jaso nuen eta ezetz esan nien. Uste dut Bera Bera taldeari baka-rik emango niola baietza.

**- Hortaz, asko estimatzen duzu?**

Taldearen jarraitzailea naz eta klub serioa iruditu zait betidanik, ekonomikoki ere,



orain arte behintzat, arazorik izan ez dutela esan didate.

**- Denboraldia prestatzen hasi zara dagoeneko?**

Bai, entrenamenduak planifikatzen hasi naiz, bideoak ikusi... Lehen partida ofiziala Superkopakoa izango da: partida zaila eta garrantzitsua izango da eta hori prestatzen nabil.

**- Jokalariekin harremanik izan duzu jada?**

Ez. Batzuekin WhatsApp edo Twitterren bitartez hitz egin dut, baina ez naiz oraindik eurekin egon. Hala ere, nire izendapena egokia iruditu zaiela eta pozik-edo hartuko nautela entzun dut.

**- Reyes Carrere entrenatzaile ohiarekin hitz egiteko aukerarik izan duzu?**

Bai, taldeak prentsaurrekoa egin zuen Donostian ni aurkezteko eta, hasi aurretik, Reyesekin hizketan egon nintzen. Ez nuen ezagutzen eta inpresio ona izan nuen. Klubean instituzioa da bera:

garai ezberdinetan entrenatzaile izan da eta horrez gain, taldeko jokalaria ere izan da.

**- Denboraldi baterako kontratua izango duzu. Zeintzuk dira zure helburuak?**

Aurten 3 titulu irabazi ditu taldeak eta European ere oso ondo ibili da. Datorren denboraldian gure helburua izan behar da bai Liga eta bai gainontzeko txapelketetan lehen postuetan ibiltzea, lehian sartzea. Azken 5 urteotan Ligako 2. edo 3. postuan ibili dira eta aurten lehen aldiz irabazi dute.

**- Horri esker, Europako Champions Leaguen jolasteko aukera izango dute. Drogeteniturre inprentara bidali orduko, ez dago argi taldeak egin beharreko inbertsioari aurre egiteko gai izango den edo ez. Zer diozu?**

Beste txapelketetarako baino diru eta baldintza

#### JOKALARI-IBILBIDEA

Eibarko Arraten, Barakaldon, Arrasaten, Gasteizko Caja Vitalen eta Castelloko Vinaros taldean jokatu du Imanolek. Ongaraiko eskoletan hasi zen jokatzen, 13 urterekin, eta 28-29 urte zituenean erretiratu zen.

Nazionalako 1. eta 2. mailan eta Ohorezko B mailan aritu da, ezker-tiarra da eta lateral moduan jokatu izan du gehienetan (zentral moduan ere). Arraterekin Euskadiko Liga irabazi zuen eta ASOBALera igotzeko fasea jokatu zuen.

#### ENTRENATZAILE-IBILBIDEA

Jokatzeari laga baino lehen Teodoro Zuazuako nesken kadete taldea entrenatzen hasi zen. 1992an Entrenatzaile Nazionalaren Karneta ateratu zuenetik, mutilekin aritu da, Arraten eta Arrasaten. Gipuzkoako hautatzaile izan da eta egun Euskadiko nesken hautatzaile da.



Drogeteniturre, 213 zkia.



gehiago bete behar dira European jokatzeko eta sponsor bila dabil taldea.

**- Zuretzako ulergarria litzateke taldeak ezetz esan behar izatea?**

Beste kirolekin alderatuta, edo hobeto esanda, futbolarekin alderatuta, ez da onargarria. Ulegarria iruditzen zait, egungo egoera ekonomikoarekin, instituzioek kirol talde profesional bati diru-kopuru bat ez ematea: arrazoizko beste behar batzuk egongo direlako seguruenik. Baina, ez da bidezkoa instituzio berdinek futbol profesionalari dirua ematea eta dituzten zorrak kontuan ez izatea, esaterako. Futbolak jarraitzaile mordo du, bai, baina or-

duan irizpidea zein da? Egun gizaratean dauden beharrak edo kirol batek dituen jarraitzaile kopurua? Hori instituzioei dagokionez.

**- Eta bestalde...**

Oso deigarria iruditzen zait eta, beharbada eskubaloian zerbait gaizki egiten ari gara, sponsorra lortzeko gai ez bagara. Penagarria litzateke nesken talde batek European jokatu ezin izatea dirurik ez izateagatik.

**- Nola bizi dute kontu hori jokalariek?**

Ez dakit, baina pentsatzen dut penaz, European lehiatzeko eskubidea irabazi egin dutelako. Niretzako ere pena litzateke aukera hori galtzea.

**- Ikusi beharko. Eta zer diozu Ermuko eskubaloiaz?**

## “Taldea sasoian dago eta nire jokoa egiteko aukera emango dit”

Ermuan nesken eskubaloia oso garrantzitsua da eta Euskadi mailan ezaguna da, baina uste dut herrian ez zaiola merezitako esker ona adierazten, hedabideetan, esaterako. Jokalariak egindako lanaz harro daude eta zuzendaritzak lan ona egiten duela pentsatzen dut, baina kalean ez da igartzen, eta pena da.

**- Eskubaloiarekin harreman berezia duzula argi dago. Beste kirol batzuk gustatzen zaizkizu?**

Bai, bizikletan ibiltzea edo, hobeto esanda, bizikletan bidaiatzea. Duela 5 bat urte Bu-

dapestera joan nintzen bakarrik, bizikletan, apustu bat galdu eta gero (2.700km). Belgikan, Frantzia eta Hollandan egon naiz, Siriatik Egiptora... Aurten, Sevillatik Santiagora joango naiz (1.000km inguru bi astetan).

**- Teknologia berriekin ere ondo moldatzen zara...**

Bai, gauza berriak ezagutzeko interesa izan dut betidanik eta ikasteko pazientzia daukat. Twitterren kontua daukat eta baita bi blog ere. Facebooka, berriz, ez zait asko gustatzen.

**- Irakurle sutsua zarela diozu zure blogean.**

Bai, denetik irakurtzen dut. Orain Luis Landeroren ‘Absolución’ irakurtzen ari naiz. Joseph Conrad, J. M. Coetzee eta Yasmina Khadra gustatzen zaizkit, hala nola nobela beltza.

**- Ermuko Pintura Eskolan ere bazabiltza. Nola moldatzen zara gauza horiek guztiak egiteko?**

Emazteari galdetu! Eskualdean zerbait izan behar dut beti, bestela ez nintzateke ni izango.

Dorleta Vidal



Imanolek 4. zembakia du argazki honetan, 80 hamarkadako hasieran aterata, Arrateko jubenilekin. Berarekin batera, beste bi ermuar: Mikel Aja (3. zembakiarekin) eta Jose Agustin Ugena (2. zembakiarekin).

Komunitateak

# San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



FOTOKOPIAK  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOA  
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Zubiaurre 14  
Telef. 943 17 28 88  
48260 ERMUA

## EGUZKILORE



GOIENKALE Z/G  
ERMUA  
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7  
ARRASATE  
Tel. 943 770 598



## JULEN POSTIGO IGO EKIMENEO MAIATZEKO IRABAZLEA



Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainako maiatzeko irabazlea Julen Postigo da. 16 urteko ermuar honek 30 euroko erosketa-txekea eta liburu sorta jaso du Udal Liburutegian. Aurtengo IGO egitasmoa ekainaren 30ean bukatuko da, beraz, parte hartu nahi dutenek arin hartu beharko dute euskarazko liburua maileguan, irakurri eta deskontu txeketa eskuratu.

## 'XIII. KIROLAZ BLAI' UDALEKUETARAKO IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Ermuko Udal Kirol Erakundeak bi aukera eskainiko die 3 eta 12 urte bitarteko umei: 'Multiabentura' eta 'Udako jolas igeriketa'. Lehena uztailaren 1ean hasi eta 18an bukatuko da (bazkideentzako prezioa, 85,50 euro; ez bazkideentzako, 124,15 euro) eta bigarrena ekainaren 27tik uztailaren 4ra bitartean gauzatuko da (56,25 eurotik hasita 173,90 eurora bitarteko prezioak, umeen adinaren arabera). Informazio gehiago eskatzeko edo izena emateko Udal Kiroldegira jo beharko da ekainaren 26a baino lehen.

## Alboka Musika Eskolako matrikula 21era arte zabalik

Alboka Musika Eskolan izena eman nahi dutenek ekainaren 21a baino lehen jo beharko dute eskolako egoitzara (Goienkale 2) edo 943 17 12 98 / 943 17 18 00 telefonoetara deitu. Eskaintza musikala, ordutegiak eta tarifak ikusteko, berriz, [www.alboka.es](http://www.alboka.es) webgunera jo daiteke. Hilabete honetan, bestalde, hainbat musika emanaldi eskainiko dituzte eskolako ikasleek. 17, 18 eta 19an entzunaldiak egingo dituzte Lobianon, 19:30ean; hilaren 20an, ordu berean, Ermua Antzokian arituko dira eta azkenik, 21ean, ostirala, Alboka Eguna ospatuko dute Antzokian, 22:00etan.



## José Carlos García ermuarra Galdaramiñon irabazle

Eibarko Galdaramiño Mendi Lasterketan José Carlos García lortu du garaipena beterenen kategorian eta sailkapen absolutuan 12. geratu da 46 urteko ermuar hau (1:18:41). Ander Carmona eta Jon Unanue, berriz, 29. eta 65. postuetan sailkatu ziren hurrenez hurren (1:24:46 eta 1:33:59). Ekainaren 9an burutu zen proba hau, Eibarko Urki auzotik abiatuta, eta mendi lasterketan 125 partaide egon ziren eta 50 mendi martxan. Guztira 14,5 km egin behar izan zituzten parte hartzaileek, "giro zakarrari, lokatza, euria eta haize finari aurre eginez", antolatzaileen arabera. Sailkapen osoa [www.mendilasterketa.blogspot.com](http://www.mendilasterketa.blogspot.com) blogean.



## 'sormenEkintza' espazioa Emakumeen Topalekuan

Emakumeen Topalekuan herrian dauden emakume sortzaileen lana ikusarazten lagundu nahi dute eta horretarako 'sormenEkintza' programa martxan ipintzea erabaki dute arduradunek. Artista eta artisau guztiak gonbidatzen dituzte Topalekuan erregistratzen, bakoitzaren datuak eta egiten duten arte-lan motari buruzko informazioa utziz: margolariak, ehuleak, zeramikariak, eskultoreak, argazkigileak, diseinatzaileak... Izena ematen duten guztien artean antolatuko dituzte gero erakusketak eta solasaldiak irailetik aurrera.

## Eskolabarriko Haur Hezkuntzako jaialdian, bikain!

Eskolabarriko 2, 3, 4 eta 5 urteko umeak Santa Anako patioan bildu ziren maiatzaren 31n ikasurteari agur esateko. Irakasleek eta Guraso Elkarateak elkarlanean antolatutako ekintza ezberdinetan parte hartu zuten umeek: "tailerak, jolasak, dantzak eta bukatzeko askari goxo goxo -diote antolatzaileek-. XII. edizio honetan, primeran pasatu dugu!".



**Ferreteria/Burdindegi**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikulua

**ANBOTO**

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ [fer\\_anboto@hotmail.com](mailto:fer_anboto@hotmail.com)  
[www.ferreteriaanboto.es](http://www.ferreteriaanboto.es)

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



## Dena prest aurtengo San Juan surako



Zurrumurru taldearen 'Klownstrofobia mendian' kale ikuskizuna hilaren 18an, osteguna, leku eta ordu berean. Bide batez, elkarteko Santixauetako Txikurirako laguntzaileak behar izango dituela gogorarazten du Euskal Birusak.

Ekainaren 23an, domeka, San Juan sua egingo du Euskal Birusa Elkarteak Kardinal Orbe plazan, 22:00etan hasita. Bertan Txindurri taldeak parte hartuko du, dantza herrikoiak egingo dira, irrintzi lehiaketa eta suzko zezena ikusteko aukera egongo da sua itzali bitartean. Aurreko ostegunean, hilak 20, dantza ikastarotxo eskainiko du Txindurri taldeak 20:00etan Lobianon, doan. Horrez gain, Euskal Birusak prest ditu jada Santixauetarako ekitaldi pare bat: Lauroba taldearen kontzertua uztailaren 16an, asteartea, 22:30ean Valdespina parkean, eta

## Boavistak irabazi du APFEko Liga eta Kopa



Gómezek sartu zuen; gol gutxien jaso zituen atezaina Boavistako Javier Delgado izan zen; Roberto Sevillanok 2012-2013 ligako goleatzaile titulua lortu zuen eta kirol-legeagatiko trofeo Txupi Gas Station taldeak jaso zuen. Aurtengo ligan 10 taldek hartu dute parte eta 2009tik 2012ra Zaldibarren jokatu eta gero, Ermuan burutu duten lehen denboraldia izan da aurtengoa.

APFEko denboraldia bukatu da jada eta Boavista taldeak lortu ditu Liga eta Kopa tituluak. Kopako finala ekainaren 9an jokatu zuten Boavistak eta Drakkars Blancas CF-k Betiondon eta penaltietan lortu zuen garaipena Boavistak, partiduan hutseko berdinetako emaitza lortu eta gero. Drakkars taldea, berriz, Kopa eta Ligako txapeldunorde izan da. Kopako final egunean beste hainbat sari banatu ziren: Kopako finaleko jokalaririk onenaren titulua, Drakkarseko Arkaitz Ajak jaso zuen; denboraldiko golik onena, América Sporteko Carlos

## 'Berrekin' ekimena abiatu du Debegesak

Debegesa garapen agentziak webgune berria sortu du Interneten, [www.berrekin.com](http://www.berrekin.com). Horren helburua da euren negozioa errentan utzi edo saldu nahi duten pertsonak enpresa-proiektu bat abiatu nahi duten ekintzaileekin harremanetan jartzea. "Eskualdean enpresen desagertzea ekidin nahi dugu, ekonomikoak ez diren arrazoiengatik -diote Debegesako arduradunek-, erretiroa dela-eta esaterako. Aldi berean, ekintzaileei bidegarriak diren proiektuak eskura jarri nahi dizkiegu, arrakastarako aukerak handituz". Halaber, Debegesako Berrikuntza eta Enpresa sailak aholkularitza eta informazioa eskainiko die ekimenean parte hartzen dutenei, enpresen jarraipena ziurtatu asmoz eta lanpostuak mantentzeko helburuarekin. Informazio gehiago: [ekintzaile@debegesa.com](mailto:ekintzaile@debegesa.com) helbidean edo 943 82 01 10 telefonoan. Bestalde, 'Gure Balioak' sariaren 4. ediziorako ize-nak proposatzeko epea, ekainaren 25ean bukatuko da. Sari horrek Debabarreneko eskualdean gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo entitatea aitortzea eta sari-zea du helburu.

## MARTXAN DA XIII. POSTAL LEHIAKETA

Postalaren edertasuna eta bertan idatzitakoaren egokitasuna baloratuko dira Udaleko Euskara Sailak antolatutako postal lehiaketan. Hiru sari emango dira bai helduen eta baita umeen kategorian ere eta parte hartzeko, irailaren 30 baino lehen bidali beharko da postala, Euskal Birusara, 247 postakutxa, Ermua helbidera.

## URKAREGIK ETA TITANIKEK IRABAZI DUTE PINTXO LEHIAKETA



Urka regijatetxearen 'Txangurro' eta txipiroi kukurutxoak irabazi du epaimahaiaren saria aurtengo pintxo lehiaketan, bere orjinaltasuna, zapore eta eraketari esker. Bigarren saria Titaniken 'Udazken lurrinak' izeneko pintxoak irabazi du. 37 taberne hartu dute parte aurtengo lehiaketan eta ondoko hauek osatu dute epaimahaia: Makatzeta jatetxeko Carlos Gulínek, Durangoko Kobika jatetxeko Koldo Kortabitartek, Lobiano Gastronomía Elkarteko kide Jesús Portugalek eta Berrizko El pastor del Gorbea jatetxeko Patxi Marinak.



**Igeltserotza - Iturgintza**

**Errekalde**

Esteban Goikoetxea  
Errekalde baserria, 1  
48260 ERMUA Bizkaia  
Tel: 662 51 42 68  
[errekalde.gm@gmail.com](mailto:errekalde.gm@gmail.com)

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da



**AUTO-REPARACIONES  
AREITIO, S.L.**

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 · 48269 - Mallabia  
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15  
[www.areitiomotor.com](http://www.areitiomotor.com)  
[administracion@areitiomotor.com](mailto:administracion@areitiomotor.com) / [areitiomotor@areitiomotor.com](mailto:areitiomotor@areitiomotor.com)

## BIHARKO IZARRAK, URBIETA ETA REZUSTA TXAPELDUN

Ekainan 15ien emon jakon amaierie Biharko Izarrak txapelketia. Urbieta eta Rezustak, Jaka eta Kerman Galartzaren aurka jokatu eben finala, emaitza 11-22 izan zalarik. Aipatzekue da Laka eta Rezustantzako hau izen dala afizionau moduen jokatu daben azkenengo partidue, ekainan 24en Astelena pilotalekuen profesional mailan jokutzen hasiko diez-eta.

## AUZO BATZARRAK

2013ko egitasmuek azaltzeko eta herritarren iritzixe zuzenien entzuteko, auzo batzarrak egin ditu Udalak azken astietan. Batzarrotan landu dien gaixen artien, hondakiñei buruzko hausnarketie azpiratu dau Udalak. Birziklatzian aldeko apustue egin eta Mallabiko herritarrak hondakiñek bereiztera animau gure dabez. Holan, hondakiñontzixek zentralizatzeo asmue azaldu eben billeretan. Auto-konpostatzeko kanpaiña bat egin eben, eta bide honetatik jarraituz, auzo-konpostaje gunie be jarriko dabe Ansoagan. Horrez gain, udazkenerako aurrikusten dan Toponomia lanaren aurkezpena be gonbidatu dabez herritarrak auzo batzar honetan.

## PLAN OROKORRA

Prest dauke Udalak Plan Orokorra. 'Ze barri' aldizkarixen argitaratu eta uztaillien aurkeztuko dabe herritarren aurrien. Alegaziñuek egiteko epie irailaren 6xen amaituko da. Honei erantzune emoteko Aholkulari Kontseilue bilduko da, eta ondoren, Osoko Bilkuran onartuko dau Udalak behin-behiñeko Plana. Onartuteko plan hau, Foru Aldundire bialduko da eta bertan oniritzixe emon edo aldaketak proposatuko ditu Aldundixek. Uztaileko aurkezpen horretarako gonbidapena egin dau Udalak.

## ARETOKO FUTBOL TALDIE

Mallabia futbol taldie, kadete maillako areto futbol taldie sortzekotan dabil. 1998-1999 urte bittartien jaixotakuei parte hartzera gobidapena egin deusie. Interesatuek edo informaziño gehiako nahi dabenak, deittu 669028718 zenbakire.

## SAN JUAN SUE

Urtero lez, Izar Gorri Kultur Elkartiek San Juan sue antolatu dau ekainaren 23en, domekan. 20:00etan txitxiburduntzixe egingo da Herrikuen eta 20:00etan ixotuko da sue. Herritar danak gonbidatute dagoz jai honetara.

## GARAZI MUGARZA LITERATURA LEHIAKETETAN SARIDUN

Garazi Mugarza idazle mallabitarra aurten be saritue izen da Julene Azpeitia eta Urruzono literatura lehiaketetan. Bixetan prosa modalitaten aurkeztu zan. 'Magia Beltza' izeneko lana aurkeztu eban lehenengora eta bigarrenera, barriz, 'Ameliaren lepokoa'. Zorionak Garazi!

## SAN JUAN JAIXEK 2013 GOITTA AUZUEN

### EKAINAK 21, BARIKUEK

- 19:00etan txopue jasotzie
- 22:00, afarixe (saieskixa, edarixe eta postrie 15€)  
Txartelak salgai Mallabiko tabernetan
- Bertsolarixek: Beñat Ugartetxea eta Nerea Elustondo

### EKAINAK 22, ZAPATUE

- 18:00, umientzako ponixek
- Ondoren, txinga erute lehiaketa herriko neska eta mutilentzat.
- Tortila patata lehiaketa, eta horren presentasinue 8retan
- 22:00, asto proba eta gizon proba lehiaketa  
IRAZOLA - INIGO AURREKOETXEA
- Gero, herrikuentzako irrintzi eta adar jotie (sarixek eongo die)

### EKAINAK 23, DOMEKIE

- 11:00, mezie.
- Mallabiko Gaszte Alai dantzataledea
- Herri kirolak: junkudie, trontzie, harrijasotzie, aizkorie, ...  
Partaidiek: Zelai III, Zelai IV, Ureta, Biurri II, Karmeleta Maider
- 17:00, umientzako jolasak "KIROLGETA"ren eskutik
- 18:00, bola premixuek  
Ondoren, txokolatada eta San Juan suek

### EKAINAK 24, ASTELEHENA

- 12:30, mezie.
- 17:00, briska txapelketie (izen emotie 10€ izengo da bikoteko)
- Ondoren, txokolatada eta rifen zozketa

ANTOLATZAILIEK: Auzoko jai batzordie eta Mallabiko Udala.

OHARRA: Jaietan ezbeharren bat gertatuko balitz, antolatzaileek ez lukete inongo erantzukizunik izango.

(Bolatokixe egun danetan zabalik eongo da)



### TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

# J. LUCAS

## PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36

# OUTUMURO

## Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

*Astehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu*



- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

MUSIKA  
ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



# 40 urte eskolak ematen, atzo zelakoan ez behintzat!

**Mallabiko Learreta-Markina Ikastetxe publikoak 40 urte beteko ditu iraillean. Hasierako urte halen aurretiko eta ondorengoak gogora ekarriko ditugu orriotan, bizi ziltuztenen ahotik eta topatutako hainbat dokumenturen haritik.**

**1** 969ko uztailearen 19a. Mallabiko Udalak Alvaro de Libano arkitektoari eskola berri bat eraikitzeak kostatu zezakeenaren aurreikuspen bat egitea eskatzen dio.

1970eko otsailaren 7a. Udalbatzaren ohiko batzarra. Eusebio Arregi alkateak aditzera ematen du aspalditik daudela gestioak egiten eskolak eraikitzeko orube bat bilatzeko, horretarako baimena 1968ko maiatzaren 31az geroztik izan arren. Jasotzen denez, aurretik lursail bat eskaini zitzaion alkateari ahoz, 'de forma verbal' dokumentuan jartzen duen moduan: Don Nicolas de Learreta y Acillona eta bere emazte Doña Josefina Marquina Ugartek m<sup>2</sup> bakoitzeko 150 pzta.ren prezioan euren jabe-goko Amezaga (Ametza) baserri inguruko lur-zatia salmentan jarri zuten. Hurrengo lerroan argitzen digun bezala baina, senar-emazteekin izandako elkarriketa berrien ondorioz, 4.573,61 m<sup>2</sup>-ko aipatutako orubea Udalari dohaintzan emateko erabakia hartu du bikoteak. Helburu eta asmo bakarrez ematen dute: bertan 6 ikasgelako Eskola Murtzoa eraikitzea, mai-xu-maistrentzat 6 etxebizi-

tza eta beharrezko diren kirol ekipamenduak. Udalbatza osatzen duten Jose Domingo Galarza, Eustaquio Ciarso, Fermin Pagalday, Luis Amillategui, Marcelino Garitagoitia eta Jose Luis Sarriguarte, deliberatu ostean, aho batez erabakitzen dute aktan jasotzea eta interesatuei ofizialki jakinaraztea:

1. Udalbatzaren eskerrik bero eta zintzoena helaraztea emaile bikoteari izandako eskuzabaltasunagatik.

2. Betirako errekonozimendu testigantza bezala, *Learreta-Marquina* deituko dela eskola, emaileen bi abizenek osatutako izena.

Urte bereko maiatzaren 2an, arkitektoaren gastuei aurre egin ezin eta Diputazioari eskatzen zaio diru-laguntza, hark demandatzen dituen 83.690,89 pezetak ordaindu ahal izateko.


Ekainaren 6an, Udalak proposatzen du umeen ikasgelak 6 beharrea 8ra igotzea, "*udalerrria izaten ari den hirigintza garapena dela-eta*" (Mikel Zarate kaleko etxe-ilara, luzaroan 'etxe barrixek' bezala ezagutua, 1967an hasi zen eraikitzen).

Proiektuak suposatuko duen dirutzaz jabetuta, 1971ko irailaren 23an alkate eta zinegotziek euren burua behartuta ikusten dute Udalaren izenean eskrituratuta dagoen orubea Hezkuntza Ministerioari eskaintzera.

Lanak hasi aurretik, ur, es-tolderia eta bertaratzeko espaloi eta sarbideak egite-ra konprometitzen da Mallabiko Udala.

1971ko azaroaren 3an Berrizko eskola inauguratuko da, *Learreta-Marquina* izen berarekin, eraikitarako erabilietako lursaila ere dohaintza bidez jaso zuelako herriak, senar-emazte berarena izanik. ABC egunkariaren hemerrotekan topatu daiteke horren berri, "*La 1ª escuela comarcal con que cuenta Vizcaya se ha inaugurado en Berriz*" izenburupean argitaratuta emanda. Bertan irakurri daitekeen legez, onartuta dago ere Mallabiko ikastetxe nazionala eraikitzea. Egitasmoa gauzatu ikusteko beste urte bi gehiago itxaron beharko dute herritarrek.

Estibalitz González



Udaleko akta. Doaitzaren eta eskolari ipiniko zailon izenaren berri emanez.



**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
euskaltegia@udalermua.net

**MALLABIKO Herriko taberna**



Eguneko platera (3€),  
menua, bokatak,  
plater konbinatuak,  
pintxoak, kazolak,  
arraina eta txuleta  
parrillan (enkarguz)...

**943 174 952**  
(asteartetan itxita)

**SEHIGA**



**LAN-BABESA**

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com





2012. Gurasoen partaidetza ezinbestekoa delako.



2004. Berrietako batzuk eskola lagako dute, munduaren mundu mundialetara jauzi eginez.



2011. Eskolako lorategiko zuhaitzak landatzen.



Jabier Muguruzarekin solasean Lehen Hezkuntza guztia.



2009. Txiki zirenak neska handi eginda daude.

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

**ONAINDIA**  
**HARATEGIA**

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44  
48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41





2004. Beste paisaia eta basoak ezagutzen.



San Martin .



2004. Urte baten 9 neska matrikulatu ziren eta hurrengo ikasturtean beste 9 eta denak mutilak.



Mallabiko eskolako umeak koko jantzita.



2006. Udaberria beti da aitzakia ona argazki baterako.



1988.

# San Juan sua

- Noiz: Ekainaren 23an, domeka, 22:00etan.
- Non: Plazan.
- Zer: San Juan sua, Txindurri taldea, dantza herrikoiak, irrintzi lehiaketa, suzko zezena...





# 40 urteko ibilbide luzeak akorduan lagatakoak

**J**usto Azagirre, Mallabiko *Learreta-Markina* eskola zabaldu zenean bertan zen irakasle. Gogoan dauka zelan hustu zituzten ordura arte eskolak ematen egondako auzo-eskolak; zelan Leon Trabakukok erabiltzen zuen furgonetan tatarretzu zituztela liburu, paper eta enparauok. Hutsik eta umezurtz, San Juan, Gerie, Berano, Zengoitte zein herriguneari zegoen eskola ere beste erabilpen batzuetarako geratu ziren. Bere gomutaz, euskara asignatura modura ematen zen lehen eskola nazionala izan zen. Sasoiko prentsan ere ematen da horren berri, demokraziaren hastapen urte haietan hori aurrera eramateko zentroak egindako ahalegina goraiatuz. Justo berak erakusten zuen euskara, D. Ruben abadearekin batera eta ikuskariaren eta D. Matias zuzendariaren oniritziarekin.

Bertan urtetxoak daramate andereño batzuk, urteen poderioz 'historikoak' bihurtu direnak. Eskolaren aldaketak gertutik jarraitu dituzten horien hitzak jaso ditugu hurrengo lerroetan: "Bistakoa da espazio fisikoa aldatu dela eta orain gehiago zaintzen dela: izan ditugu urteak mantentze-lan barik, zikin, astean soilik

hiru bider garbitzen zela. Udala ez zen eskolaz kargutzen, eskola ez zela errentagarria-eta. Baliabide pedagogikoetan, oster, aldaketak ikaragarriak izan dira: lehen arkatzak, boligrafok eta liburuak besterik ez genituen erabiltzen. Kopiak egiteko glizerinaz egindako inprenta, multikopista gero... Eskola orduetatik kanpo dedikazio handia eskatzen zigun gure lanak: bi ordu geratu behar ginela, ba bi ordu. Gazteak izateran asti gehiago genuen.

7. eta 8. mailetako eskolaumeak Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera pasatu zirenean, eskola-giroa erabat aldatu zen eta harrezkeroztik diziplina arloan erratzagoak izan dira gauzak. Dena den, irakaslea jaun eta jabe zen edozer egiteko: erretzeko, ikaslea joteko, kanporatzeko, iraintzeko... Diziplina, zigorrak, isil-isil egotea, maisu-maistronek berbak bakkarik baleko... Horretan asko aldatu da gizartearen kontzientzia eta gurasoena. Lehengo errespetua larregikoa zen, ez genekien umeak kritikoak ziren ala ez, baina argi dago ez zirela ausartzen kontra egiten, euren iritzia ematen... Gaur egun, ez errespeturik ez dagoelako, ez, baina ikasle zein gurasoak ausar-



Kanpotik zein barrutik, arlo eta espazio kontuetan errotik aldatu ba Mallabiko eskola. Umeen jolasguneari begiratu besterik ez dago.

tu egiten dira esan beharrekoa esatera. Horretan, pertsonen arteko konfiantzan, nabari irabazi dugu eta horrexek hain juxtu laguntzen digu gure egunero jarduna hobetzen, gure buruari kritika egitea ahalbidetuz.

## Kaletarragoak

Lehengo gurasoak ez ziren eskolatik agertu ere egiten eta orain guztiak ezagutzen ditugu. Euren seme edo alabaren irakaskuntza-prozesuaz arduratzeaz gain, eskolan parte-hartze handiagoa dute. Garai batean ume mallabitarrak oso euskaldunak edo oso erdaldunak ziren; egun ez da bereizketa hori ematen: nolabait esatearren, euskalduna ez da hain euskalduna eta erdalduna ez da lehen besteko erdalduna. Baserri

girotik zetozen asko, base-ri-bizimodua ezagutzen zuten; orain kaletarragoak dira, herrigunera datozelako ume eta jolaskide gosez. Euskara gero. Nabarmen egin du atzera azken urteotan, erdara umeen komunikazio-tresna nagusia bihurtuz. Bestalde, azken boladan egindako etxe-multzoak herrira gazte-jende andana itzela erakarri du, eskolaren onurarako, berau gaztetzea, aberastea eta dibertsifikatzea lortuz. Gaztetasun hori irakaslerian ere sumatu da, aire berriak etorritzat paraje hauetara".

Luze jo genezakeen, arlo bati zein beste bati erreparatuz. Iritziak iritzi, gogorapenak gogorapen, orduan eta gaur umeak ume!

Estibalitz González

**Proba-Leku**  
Hezpaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

**DO**  
Mouth



**Amaia Idigoras, fofutxa panpinen egilea:**

# “Eskulanetan, probak egitea ezinbestekoa da”

**Amaia Idigoras ermuarrak urtebete baino gutxiago darama fofutxak egiten. Brasilen jaio ziren eskuz egindako panpina hauek, Interneten arabera, eta goma EVA (hau da, Etileno Vinil Acetatoa) eta poliespana dituzte osagai nagusiak. Baten batzuek salgai ditu Amaiak eta enkarguz ere egiten ditu.**

**- Noiz ikusi zenituen fofutxak lehen aldiz?**

Salamancako azoka batean ikusi nituen, neska batek salgai zituelako. Hona etorritakoan, Interneten sartu nintzen eta... denetik topatu nuen! Bideo mordoa ikusi daitezke panpinak pausoz-pauso egiten ikasi eta aukerara ezberdinak ikusteko, eta probatzera animatu nintzen: eskulanetan probak egitea derrigorrezkoa da, emaitza... beste kontu bat da!

**- Zure kabuz ikasten joan zara, beraz?**

Bai. Ikastaroak ere badaude, baina egun batekoak dira eta oso garestiak.

**- Zeintzuk osagai behar dira fofutxa bat egiteko?**

Burua, gorputza eta hankak egiteko poliespaneko bolak behar dira. Poliespana, enbalatzeko erabiltzen den kortxo zuri hori da. Hantetan, alanbrea edo burrun-tzi-pintxoan makilatxoak ipintzen dira eta beste guztia goma EVArekin egiten da. Horrez gain, errotuladore permanentea eta akuarelak behar dira aurpegia marrazteko, kola eta CD bat panpinaren oinarri gisa.

**- Material horiek garestiak dira?**

Ez. Poliespameko boleak 50 zentimo inguru balio dute (tamainaren arabera) eta goma EVA laminaren prezioa 80 zentimo edo euro bat eta piku artekoa da. Gainera, hasi nintzenean, Internet bidez erosten nituen, baina egun Ermuko hainbat saltokitan topa daitezke.

**- Zein da panpina egiteko prozesua?**

Zer egin nahi duzun pentsatu eta patrioiak moztu, lehenik eta behin. Jarraian, ‘cinta de carrocerero’rekin batu behar da poliespana, kolak kortxoan jan ez dezan. Azkenik, goma EVA lisatzeko plantzarekin berotu, forma eman eta poliespanari pegatu. Gero, nahi dituzun detalleta guztiekin apaindu ditzakezu. Izugarri gustatzen zait!

**- Zenbat denbora behar da panpina bat egiteko?**

Denboratxoa behar da. Nik astean zehar patrioiak ateratzen ditut eta asteburuan panpinak muntatzen ditut. Orain hasieran baino bizkorrago egiten dut eta zapatu batean, patrioiak moztuta baditut, panpina pare bat egin ditzaket. Guztira, 4 bat ordu inguru eskatzen du panpina bakoitzak.

**- Salgai dituzu, ezta?**



Bai, Todo a 100en ditut salgai, eta enkarguz ere egiten ditut. Urkaregi jatetxearentzako 9 egin ditut azkenaldian: 7 jaunartzeko pastelerako eta 2 ezkontzetarako. Materiala erosteko beste ateratzen dut!

**- Zenbatetan saltzen dituzu eta zer egin behar da eskatzeko?**

20 euro ingurutan saltzen ditut. Badakit beste batzuek gehiago eskatzen dutela, baina... Astebeteko epearekin eskatzea gomendatzen dut (630640202, nire Facebookaren bitartez edo Todo a 100en eskatuta).

**- Etxean fofutxa asko dituzu?**

Oso gutxi. Semeak Athletikeko bat dauka eta orain nire baserriar jantziarekin beste bat egingo dut niretzako. Patrioiak baditut dagoeneko.

**- Eskulanekin trebea izatea beharrezkoa da?**

Tira, pazientzia behar da eta gainera ni ez naiz fofutxak egiten hutsetik hasi. Aurretik ‘fimo’-arekin gauzatxoak egiten nituen: eraztunak, koilareak eta belarritakoak, besteak beste. Orain gantxiloa egiten ikasten ari naiz.

**- Ibilbidetxoa baduzu, orduan...**

Bai, eskulanak betidanik gustatu izan zaizkit eta umeekin ere txikitatik ibili naiz eskulanak egiten: horrela irten zaizkit! Orain umeentzako beste material bat asmatu dute: ‘jumping clay’, plastilina eta goma arteko nahasketa moduko zerbait, eta badaude jada horrekin ere gauzatxoak egiten...!

Dorleta Vidal

Bar London  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

# Minbizia jasaten duen neskato bati laguntzeko ekimena martxan da

Alba Pérezek 5 urte beteko ditu laster, Bartzelonakoa da eta 5 hilabete zituenetik Ewing-en sarkoma jasaten du. Eneida Calleja ermuarrak aspaldi izan zuen honen berri Facebooken bitartez eta ahal duen laguntza guztia emateko eta herriko jendea sentsibilizatzeko lanean dabil ordutik.

“Nik ere alaba daukat eta istorio honetaz hitz egiten entzun nuenean, berehala harrapatu ninduen. Bizitzeko gogo ikaragarriak ditu Albak”, dio Eneidak. Alba Pérez Bartzelonako ospitaletan bizi da ia jaio zenetik (egun Hospital Sant Joan de Déu dago), Ewing-en sarkoma gaixotasunak jota. Gaixotasun horrek nerabeei eragiten die gehienetan eta zaila da jarraitu beharreko tratamendua hain ume txikiei ematea, medikuen esanetan. Gainera Albak “pleuran du minbizia kokatua (toraxaren barruan eta biriken inguruan dagoen mintzan) eta sendatzea gero eta zailagoa da” dio Eneidak.

Berrizen bizi da Eneida, baina sarri etortzen da Ermura. Urtarrilean kontu honetan murgildu, Aste Santuan Albari bisita egin zion Bartzelonan eta hona helduta, dirua jasotzeko ekime-

netan hasi zen. Dagoeneko bi azoka solidario egin ditu Ermuko Merkatu Plazan (apirilaren 5etik 7ra eta maiatzaren 17tik 19ra), baita Eibarren eta Gasteizen ere, eta Donostiakoan laguntza eskaini du. Azoka horietan jendeak emandako brotxeak, gozoak eta arropak saltzen dituzte, besteak beste eta balorazio positiboa egiten du Eneidak: “Izan ere, azken azokan 1.000 euro pasatxo jaso genituen. Jende nagusia konbentzitzea bereziki zaila da. Oso garestia iruditzen zaie dena eta gainera ez dira fidatzen, iruzurra dela uste dute”.

#### Ikerketarako beka

Baina ez da iruzurra. Eneidak jasotzen duen diru guztia Alba Perez Elkarteari ematen dio eta diru horren helburua beka sortzea da, gaixotasuna ikertu eta sendabideak topatzeko bidean aurrera egin ahal izateko.



Eneidak ia egun osoa deditzen dio kontu horri: Albarren aitak idazten duena irakurtzen, beste lekuetako elkarteko kideekin berbetan, azokarako gauzak batzen... eta bere inguruko batzuei zaila egiten zaie dedikazio hori ulertzea. “Nere amak batzuek etxea trastez beteta dudala esaten dit eta nire alabak jeloskortasun puntua ere badauka, baina normala da. Oraindik ez du ulertzen gertatzen dena”, dio Eneidak. Bere ahizparen laguntza jaso arren, bakarrik sentitzen da bide honetan Eneida. Taldeetan jende asko dagoela aitortzen du, laguntzeko prest, baina momentua heltzen denean, atzera egiten dutela dio. “Nik ulertzen dut bakoitzak bere lehenetsunak izatea, baina ez dezatela bere burua eskaini erantzunak beti ezezkoa izan behar badu”.

Datozen hilabeteetan ekimen gehiago abiatuko ditu Eneidak. Eibarren egingo du azoka, Sallabenteko jaietan postua ipiniko du eta, uda ostean, beste azoka bat egingo du Ermuan. Lagundu nahi dutenek Facebook, teaming, migranodearena, asociacionalbaperez eta shopciable webgunetara jo dezakete.



**OSASUNA \* ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

**ARRAL 97**

**D. ARRAL 97 S.L.**

Tfn. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos

**Pub SCORPIO**

Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK**

**EGANA**

**ALDAGAILUAK**

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR



# I B O N E M E D I N A

- **Nola definituko zenuke zure burua?**

Oso familiarra naiz, niretzako familia da garrantzitsua.

- **Ikasketarik?**

Kazetaritza eta ikus-entzuzkoen modulua ikasi nituen, ikasketak lanarekin tartekatzen nituelarik. Praktikak Diario Vascon, Euskal Telebistan eta Andoingo Kanal On telebistan egin nituen.

- **Kazetaritza bertan beharra utzi behar izan zenuen...**

Produktora batean lanean nengoela, ostatuan egiten nuen lo. Batzuetan goizeko hiruretan jaiki behar nuen, eta bakardadearen zein garai hartako egoeraren ondorioz motibazioa galdu nuen.

- **Egun lkatzen egiten duzulan. Zer da zure lanean gehien estimatzen duzuna?**

Argazkilaritza betidanik gustatu zait, nire etxeak argazki museoa dirudi! Eta jendearekin harremanetan egotea ere asko estimatzen dut.

- **Nola lasaitzen duzue zure burua?**

Estututa edo triste nagoenean Laredora, nire paradisu txikira, egiten dut osteratxoa.

- **Biziorik?**

Erretzea. Haurdun geratu nintzenez ia bi urte eman nituen erre barik, baina oso urduria naizenez ez nuen gehiago aguantatu.

- **Musika estilo bat ...**

Denetarik entzuten dut, Ken Zazpi bereziki. Orain dela 15 egun Alejandro Sanz-en kontzertuan egon nintzen eta oso ondo pasatu nuen.



**Duela 32 urte jaio zen Ibone. Bi ahizpa dira eta bera da zaharrena. Unai Calongerekin ezkondu da eta Uxue izeneko alaba dute, 4 urte dituena. Zortzi urte daramatza lkatzen lanean eta Realzale amorratua da.**

- **Kantu bat?**

Ken Zazpiren 'Haizea'.

- **Nora bidaiatuko zenuke?**

Hondartza eta eguraldi ona dagoen edozein lekura joango nintzateke.

- **Mendi bat?**

Laredoko Atalaia.

- **Zaletasunen bat?**

Abestea asko gustatzen zait. Koroan abesten nuen, baina lana eta umearekin utzi egin behar izan nuen. Ahizparekin kontzertuetara joatea ere asko atsegin dut.

- **Ametsik?**

Aitita eta amamarekin berrirori egotea.

- **Egunik zoriontsuena?**

Nire alaba jaio zenean.

- **Gogoko duzun kolorea ...**

Beltza.

- **Eguneko unerik gozoena?**

Gaua, Uxue eta Unairekin elkartzen naizenean, erlaxaturik nagoenean, eta jateari ekiten diotenean.

- **14 bat urte elkarrekin egonik, zein da maitasunari eusteko errezeta?**

Konfiantza eta, azken finean, bikotea zure laguna ere izatea.

- **Jateko gogorik?**

Amatxoren zopa!

- **Zerk kentzen dizu loa?**

Langabeziak, krisiak, familian zer edo zer gertatzeak...

- **Krisia dendan igartzen al da?**

Bai, asko. Egoerari aurre egiteko elkarturik egotea ezinbestekoa da. Era berean, oso garrantzitsuak dira Gau Irekia bezalako jaiak, argazki eskaintzak egitea, bezeroekin detaileak edukitzea... Azken finean, norberak ahal duen moduan egiten du aurrera!

- **Zer falta da herrian?**

Langabezian daudenentzako lana. Gainera, Ermua hiltzen ari da, eta herria berpizteko laguntza behar dugu. Horretan zeregin handia du Udalak.

- **Nahi bai baina egin gabe hori?**

Gidabaimena ateratzea. Izugarriko beldurra ematen dit.

- **Berriz jaioko bazina?**

Gauza asko ez nituen berdin egingo.

- **Lagun bati zer eskatzen diozu?**

Hiru hilabete ikusi barik egonda ere, ikusten garen momentuan dena berdina izatea, berdin egotea.

- **Juerga aldetik?**

Ez dut parranda asko egiten, etxean oso goxo egoten da-eta! Dena den, San Martinen, Santixauetan, afariren bat edo ezkontzaren bat dagoen irteten naiz.

- **Bizitzak zer irakatsi dizu?**

Askotan denbora galtzen dugula ondokoari begira, eta ez garela konturatzen zoriontsu izateko minutu bat galtzen gaudela. Oso garrantzitsua da momentu guztiak aprobetxatzea eta zoriontsu bizitzea.

Leire Elustondo



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



**MALLA**  
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

# Hedabideak, indarkeria matxistaren kontra?

**D**enok dakigu indarkeria matxista egitura arazoa dela, gure jendartean gailentzen diren arau eta balioetan oinarritzen delako, eta argi dago indarkeria sexistaren atzean gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna dagoela. Horregatik, emakume izate hutsa egunero jasaten ditugun eraso sexistak minimizatzen eta normalizatzen ahalegintzen gara. Ildo honetatik, hedabideak ere sexismoa bultzatzeko tresna estrategikoak direla esan genezake.

Hedabideak eta publizitatea jendarte-eragile boteretsuak dira, pertsonak sozializatzeko gaitasuna dutelako. Iritzi publikoa sortzen dute, balore eta diskurtsoak hedatuz. Errealitatea zalantzan jartzeko edo legitimatzeko ahalmena dute eta indarkeria matxistaren gainean kontraesanaz jositako informa-

zioa zabaltzen dute. Alde bate-tik, politikoki zuzena den diskurtsoa egiten dute, hau da, publikoki eraso sexistak gaitsetzen dituzte, baina, beste-tik, kultura eta ideologia matxista bultzatzen dute, adibidez, emakumeak objektu gisa tratatzen dituztenean eta hainbat estereotipo sexista sustatzen dutenean.

Komunikabideek indarkeria matxistaren eredu finko eta estereotipatua hedatzen dute. Hori dela eta, gazteek indarkeria sexistaren gaineko irudi estereotipatua dute; esaterako, normalean tratu txarrak aipatzean emakume heldua irudikatzen dute eta indarkeria soilik tratu txar fisikoekin lotzen dute. Horregatik, neskek askotan konturatu barik tratu txarrak pairatzen dituzte: kontrol estrategiak, sexu erasoak, biraoak eta umiliazioak, besteak beste.



*Zaida Fernández*  
*Emakumeen Asanbladako*  
*eta Tratu Onen Aldeko*  
*Plataformako kidea*

Bestetik, amodio erromantikoaren ideologiak emakumeen mendetasuna areagotzen du, maitasunagatik dena aguantatu behar dutela pentsatzen eta sentitzen dute. Hori da, azken finean, jasotzen duten mezua. Eta mutilengan, oraindik, jarra oldarkorrek bultzatzen dira. Horixe da indarkeria matxistaren oinarria.

Beraz, garrantzitsua da gaur egungo indarkeria nolakoa den identifikatzea eta gazteekin lan egitea berdintasunean hezteko eta edozein motako indarkeria sexistari aurrea hartzeko. Horretarako, betiko genero-rolak zalantzan jarri beharko ditugu mendekotasunik egon ez dadin eta nesken artean jabeakentza bultzatu, euren buruaren jabe izan daitezen, etorkizunean errespetuan eta askatasunean oinarritako harremanak izateko.

**Betiko genero-rolak zalantzan jarri beharko ditugu mendekotasunik egon ez dadin**

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



**Infreñu**  
**Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



Bidali zure zorion-agurra  
drogeten@gmail.com helbidera.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:

**UZTAILAREN**  
10a

Drogeteniturrri aldizkaria etxean  
**DOAN** jaso nahi duzu?

943 17 93 50  
drogeten@gmail.com



Ekainaren 17an  
Zorionak Aner zure  
6. urtebetetzean.  
Ondo pasa zure  
guraso, izeko-osaba  
eta aitite-amamen  
partez, bereziki Ane  
eta Irama  
lehengusinen  
partez.



Gure Lurtxok  
urtetxo bi beteko  
ditu uztailearen  
12an. Patxo potolo  
bat.

Lorea Perosanz eta Joseba  
Aranzabal ermuarrek irabazi dute  
Santixauetako kartel lehiaketa

Ermuko Udaleko webgunean irakurri daitekeenez, Lorea Perosanz eta Joseba Aranzabal bikote ermuarrek egindako kartelak iragarriko dituzte aurtengo jaiak. Ermuarren lana ordenagailuz egina dago eta txapel-dunek 600 euro jaso dituzte. Lehiaketara hogeita hamabi lan aurkeztu dira. Kartel horien artean Arte Ederretan adituak diren epaimahaikideek lehen aukeraketa bat egin zuten. Ondoren, proposamen horiek Jai Baztordera eraman ziren eta han, azken erabakia hartu zen.

800 lagunentzako paella, 800 lagunek dastatu

Ekainaren 15ean Paella Solidarioa egin zen Ermuan, Titanic tabernak eta Lobiano Gastronomia Elkartek antolatuta, eta Ermuko Merkataria eta Ostalari Elkartearen laguntzarekin. Boluntarioek goizean goiz ekin zioten oilaskoa, barazkiak eta mariskoa prestatzeari, Jesus Gonzálezek gidaritzapean eta, agindutakoari jarraituta, 800 errazio sukaldatu zituzten 15:00etarako. Aurreko egunetan bazkarirako tiketak salgai ipini ziren herriko hainbat saltokitan eta egunean bertan ere, eta agortu egin ziren. Jasotako diru guztia Ermuko Udaleko Zerbitzu Sozialek kudeatuko dute eta egoera ekonomiko latza bizi duten herriko familien artean banatuko da.



**TXINDURRI**  
**TALDEA**  
**Tokian**  
**tokiko**

**Harategia**

**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Basorrian*  
*Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua**

**PRO**

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA**  
**OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**MUGA**

**KILOJAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

**MALLABIA  
1968**

Mallabiko eskolatik Hondarribira egindako txangoa, 1968ko ekaina.

Bertan agertzen dira: Fidel Madariaga, Jesus Astarloa, Jesus M<sup>a</sup> Sarriugarte, Laureano Bastida, Jose Benito Aranburu, Jose Antonio Areitioaurtena, Migel Angel Milikua, Juan Carlos Abendibar, Sabino Olano, Juan Luis Sarasua, Fernando Aldalur, Jose Antonio Pagaldai, Santos Aranburu, Rikardo Bastida... Matias Diego zuzendariarekin.

**ERMUA  
1974**

Argazki hau Logroñoiko Puentremadrecko udalekuetan aterata dago, 1974 urtearen bueltan. Bertan agertzen dira, eskumatik hasita: Sabin Agirregomezkorta begiralea, Eleni Ugarteburu, Jon Mikel Lauzirika, Sorkunde Zelaia-Zugadi, Esther Tejada, Idoia Urzainki, Amaia Arriaga, Maite Arin, Amaia Guridi, Idoia Narbaiza eta Iñaki Agirregomezkorta begiralea makurtuta, besteak beste.

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**Quetzal** berria!!  
[arropa, bitxiak, opariak...]  
ekainetik aurrera  
**Eibarren** ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065  
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500



**2011ko martxoan ipini zen martxan, modu ofizialean, osteguneko pintxo-pote ekimena Ermuan. Merkatari eta Ostalarien Elkartetik adierazi digutenez, 13 taberna inguruk parte hartzen du astero, elkarteko kide ez diren beste tabernekkin batera.**

**Ostegunetan pintxo-potea egiten duzu?  
Horrelako ekimenak herria girotzeko baliogarriak direla uste duzu?**



Nik ez dut parte hartzen, baina lagunek bai eta herrian giro polita sortzen dela diote. Pintxoaren asteen ere, Jardunaldi Gastronomikoetan, jende asko ibiltzen da.

**Eider Gisasola, 24 urte**



Bai, Bertso Eskolara joan baino lehen joaten naiz batzuetan pintxo-potera. Herriari onurak ekartzen dizkio, bai herritarrei eta baita tabernariei ere.

**Unai Rodriguez, 18 urte**




Bai, joaten naiz eta, Jardunaldi Gastronomikoen pintxo asteen, egunero irteten naiz. Horrelako kontuek giroa sortu beharko lukete baina, aparkalekurik ez dagoenez, ez dator kanpoko jenderik. Egonez gero, jende gehiago etorriko litzateke.

**Jon Cuevas, 33 urte**



Bai, batzuetan pintxo-potea egiten dut eta oso pintxo onak egoten dira. Duda barik, kalean eta tabernetan giro ona sortzeko balio duela uste dut.

**Mari Carmen Arruti, 58 urte**



### Tasio eta Sabino

- Tabernak topera daude! Zelako gustura ibiltzen den horrela, aspaldian bezala!

- Ez pentsa! Honenbeste jendekin ni ez nago horren gustura...!

**Uztailak 14, igandea**

- 10.00: San Martin plazan BloodBowl txapelketa.

- 10.00: Plazan 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzako A 3 Futbol Txapelketaren hasiera.

**Uztailak 15, astelehena**

- 18.00: Lobianon, 'Nós mesmos. Galiziako elkartegintza migrazioan' erakusketa.

- 19.00: Plazan, artaburu eta pepino lehiaketak txarangen jokoetan.

- 22.30: Valdespinan kontzertua, Harresian Zulo taldea.

**Uztailak 16, asteartea**

- 19.00: Plazan, sokatira eta pringe probak.

- 22.30: Valdespinan kontzertua, Lauroba.

**Uztailak 17, asteazkena**

- 19.00: Plazan triatloia eta jatorrizko bekatur probak.

- 22.30: Bertso Jaialdia Valdespinan, Iñaki Aleman, Nerea Ibarzabal, Iñaki Viñaspre, Aitzol Barandiaran, Erika Lagoma eta Eñaut Uruburu.

**Uztailak 18, osteguna**

- 17.30: Tratu onen aldeko plataformak,

informatzeko postua irekiko du.

- 18.00: Kiroldegian Areto-Futbol Txapelketa hasiko da.

- 17.00: Plazan, sokatiraren finala eta kuboaren proba.

- 22.30: Valdespinako parkean 'Klownstrofobia mendian' kale ikuskizuna, Zurrumuru taldea.

**Uztailak 19, ostirala**

- 18.00: Kiroldegian Areto-Futbol Txapelketa.

- 18.30: Plazako pilota-lekuan, Paleta Txapelketaren finala.

- 22.30: Plazan Play-Back lehiaketa.

**Uztailak 20, larunbata**

- 9.00: Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, Txakurren Erakustaldi-Lehiaketa.

- 9.15: Kiroldegian, Areto-Futbol Txapelketa.

- 10.00: Plazatik hasita, Urko 69etan ezetz! V. Igoera kontrolatua.

- 10.00: San Antonio baselizan, Ermua Hiriko II. Slotrallya.

- 11.00: Plazan Aldibereko Xake Partida Azkarren XV. Lehiaketa.

- 16.30: Plazan XI. Mus

Txapelketa Herrikoia.

- 19.00: Plazan, Dantza Emanaldia Txindurri taldearen eskutik.

- 23.30: San Pelaion, M Clan taldearen kontzertua. Aurretik, Los Zigarros, taldea.

**Uztailak 21, igandea**

- 9.00: Kiroldegian, Areto-Futbol Txapelketa.

- 9.30: Mendi Bizikletako XVIII. Herri Martxari irteera emango zaio plazatik.

- 10.00: Plazako pilota-lekuan Arku Tiro Proba.

- 10.00: Plazan, Herri-Arteko Xake Partida Azkarren XVIII. Lehiaketa.

- 11.00: Lobianon, Rol eta Estrategia Jokoak.

- 11.00: San Pelaion, Irratiz Kontrolatutako Kotxeen Ermua Hiria XVI. Txapelketa.

- 16.00: Nazio mailako Bolo Txapelketa, San Pelaioko bolatokian.

- 18.00: Plazan jaialdia, Guadalajarako Arrabal Folk, Cuencako Trío Albéniz eta Lodioko San Fernando dantza taldeen eskutik.

- 18.00: Kiroldegian, Gimnastika Erritmiko

ikustaldia, Ermuko taldearen eskutik.

- 19.00: Kiroldegian, Areto-Futbol Txapelketaren finala.

**Uztailak 22, astelehena**

- 21.00: Plazan, Herri Ogitartekada eta edariak prezio berezietan.

- 22.30: Plazan Txarangen abesti lehiaketa.

**Uztailak 23, asteartea (Umeen eguna)**

- 10.30: Buruhandiak plazan.

- 11.00/13.00 eta 16.00/19.00: Umeentzako Parke eta Tailerrak plazan.

- 17.00: Haurrentzako Txokolate-Jana plazan.

- 19.00: Plazan 'Mugi Mugi' Haurrentzako Musika-Ikuskizuna, Animagic taldea.

**BESTELAKOAK**

- **Hilaren 1etik 7ra:** Sallabenteko jaiak.

- **Hiak 6:** Haurrentzako jaialdia. 11.00etatik 21.00etara. Plazan.

Patxi López

hamburguesería  
**TITANIK**



Pintxo dastaketa  
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



optika

**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**T**XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

Erdikokale 13  
(Ermua)



Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK**  
943 030 299



# INGELES ALEMANA FRANTSESA ITALIERA

2013 - 2014 Kurtsoa

- ✓ 4 urtetik gorako umeen talde txiki eta orekatuak
- ✓ Irakasle espezializatuak, lanbide esperientzia zabalarekin
- ✓ Cambridge azterketak
- ✓ Akerlei metodoa: 20 urtez umeen heziketan adituak
- ✓ Zure seme-alaben aurrerapenak, irakaskuntzako historia eta ebaluaketa txostenak online kontsulta ditzakezu
- ✓ Arbel digitalak, wi-fi, ordenagailu gela, etab
- ✓ Gainera, ekintzak, tailerrak, udalekuak...

**54** €-tan  
soilik

**Akerlei**  
hizkuntzak

Irailaren 13ra arte  
**Matrikula  
Dohainik**

5.423 ikaslek bermatzen gaituzte

**943 17 66 32**

Bizkaia etorbidea 5, behea - ERMUA

**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**Irale**  
 hortz klinika  
 Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Implanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behe 943 17 71 34  
 www.irale.com

**Yoga eskola**  
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak  
 Erloxazioa eta meditazioa  
 Osteopatia eta bertebrologia  
 Anginak sendatzeko masajea

**Sanatana Dharma**

San Roke 24, behe  
 943 74 85 93  
 685 722131 (Idoia)

**san pelayo**  
 clínica dental hortz klinika

Implanteak  
 Ortodontzia  
 Periodontzia  
 Hortz-zuriketa / Estetika dentala  
 Odontologia orokorra  
 Protesiak  
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berritu eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

**NATURA**  
 Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**

Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**Osasun gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 17 93 50  
 edo 688 63 28 76 telefonora**